


ZIBERGELA



Dokumentuak partekatu Internet bidez



Dokumentuak sortzen, editatzen eta partekatzen laguntzen diguten gero eta tresna gehiago daude

JOSU WALIÑO
Elhuyar fundazioa

Web 2.0 famatuaren jaiotzaz geroztik, gero eta web zerbitzu gehiago aurki daitezke Interneten. Horieta erabilienetarikoa, seguruenik, dokumentuak sortzeko, editatzeko eta partekatzeko zerbitzuak dira. Horieta lehen zerbitzuak dira. Writely erabiliz, testu-dokumentuak sarean gorde eta parteka zitzaizkeen edonork. Zerbitzu haren arrakastak azkar izan zuen erantzuna, eta Google Writely erosi eta Google Docs jarri zuen abian. Baina Google Docs ez da horrelako zerbitzuen artean bakarrik, ezta onena ere, sarean badaude aukera gehiago.

GoogleDocs

Interneten zerbaitekin arrakasta duenean, Google ez da urrutiti ibiltzen; hori da Google Docsen kasua ere. Esan bezala, Writely erostean ondorioz sortu zen Google Docs zerbitzua, eta hasiera batean testu-dokumentuak sortu eta partekatzeko bakarrik balio bazuen ere, gaur egun web bidezko Office oso bat da: testu-dokumentuez gain, kalkulu orriak eta aurkezpenak ere sor, edita eta parteka daitezke. Zerbitzua oso ona da, eta, dokumentuak edozein tokitatik atzitzeko aukera emateaz gain, pertsona bat baino gehiago dokumentu bakarrean aldi berean lanean aritzeko aukera ematen du.

OfficeLive eta LiveDocuments

Askotan esan da Googlek lehia zuzena eginen diola Microsofti, hark software mailan ematen dituen zerbitzuak Internetera eramaten dituelako. Bereziki, web bidezko Office zerbitzu horiek Microsoft Officerekin lehiakide zuzena dira. Horregatik, Microsoft

Google Docs zerbitzuarekin testu dokumentuak eta kalkulu orriak ere parteka daitezke

ere mugitu da arlo horretan, eta bere zerbitzua jarri du sarean, Microsoft Office Live izenarekin. Zerbitzu horren bidez, Office dokumentuak parteka eta edita daitezke Internet bidez. Zerbitzua berri samarra da, eta ez dago oraindik erabat zabaldua. Esan daiteke Microsoft berandu iritsi dela oraingoan; baina ez hori bakarrik: haren aspaldiko ezagun batek berriz ere aurrea hartu dio, eta zerbitzu hobea sortu du, LiveDocuments izenarekin.

LiveDocuments Sabeer Bhatia sortu du, 1997. urtean Hotmail sortu eta Microsofti saldu zion berberak. LiveDocumentsek Google Docs eta OfficeLivek eskaintzen dituen aukerak eskaintzen ditu, baina ez hori bakarrik: Microsoft Officerekin integratzen den plugin bat eskaintzen du, eta, hori erabiliz, Officen editatutako dokumentuak Interneten gordetako bertsioekin sinkronizatzen dira. Horrek aukera ematen du dokumentuak Internetera konektatuta egon gabe aldatzeko, ordenagailuko bertsioan off line egindako aldatetak automatikoki sinkronizatzen baititu sistemak Internetera konektatzean.

Zoho

Orain arte aipatutako guztiak oso ezagunak dira gehienentzat, baina Google eta Microsoft erral-

Zohok bere webgunearen bitartez hainbat zerbitzu erabiltzeko aukera ematen du

doiak gudan dabilzan lurralde horretan, badago aspalditik bie aurrea hartzen dien web zerbitzu txiki bat: Zoho. Harrigarria dirudien arren, Googlek eta Microsoftek beren web zerbitzuak kaleratu aurretik kaleratu ohi ditu Zohok bere zerbitzuak, haien antzekoak. Zohoren webgunean eskaintzen dituzten zerbitzuak ez dira testu-dokumentu, kalkulu orri eta aurkezpenetara mugatzen, web bidez lan egiteko aukera ugari eskaintzen dituztelako: datu baseak, CRMak, proiektuen kudeaketarako aplikazioak, eta abar. LiveDocumentsek eskaintzen duen dokumentuen arteko sinkronizazioa ere eskaintzen du Zohok, Google-ren tresna bati esker, gainera (Google Gears).

Web bidez zerbitzuak eskaini eta lan egiteko garaian, Zohok aurrerapen handiak ematen ditu etengabe, eta kontuan izan beharreko zerbitzua da.

Ikusten da, beraz, dokumentuekin Internet bidez lan egiteko badagoela nahiko aukera, eta aurrerantzean ere emango dutela zeresanik zerbitzu horiek.

GoogleDocs:

<http://docs.google.com>

Microsoft Office Live:

<http://officelive.microsoft.com>

LiveDocuments:

<http://www.live-documents.com>

Zoho:

<http://www.zoho.com/>

Zibergelako artikulu guztiak:
www.baleike.com/blogak/zibergela

Berria

Microsoftek, Philipsek eta Nintendok ingurumenari kalte

Greenpeacek azterketa bat egin du elektronika produktuen garatzailen artean, eta, emaitza kaleratu duenean, nabarmen gelditu dira konpainia handiak. Greenpeacek 0 puntu eman dio Nintendori hamarreko eskala batean, haren bi kontsola izarrak, Wii eta DS, egiteko erabiltzen duen materialarengatik. Philipsek 2 puntu besterik ez du lortu, eta Microsoftek 3. Hiru konpainia horiek zerrendaren amaieran daude. Ingurumena gehien zaintzen dutenak, ordea, Sony Ericsson eta Samsung dira. Biek 7,7 puntu lortu dituzte, hamarreko eskalan. Nota hori emateko, marka horietako sakelako telefonoak, ordenagailuak, telebistak eta joko-kontsolak aztertu ditu erakunde ekologistak.

Nintendo Japoniako taldea zerrendan azkena izatearen arrazoiak erabiltzen duen materiala da. Izan ere, Wii eta DS ezagunak egiteko PVCa erabiltzen du. Bere kabuz ez da toxikoa plastiko hori, baina ezinezkoa da birziklatzea, eta errez gero isuri oso toxikoa sortzen du, dioxinak, batez ere.

Helbidea

Interneteko historia gordeta

Internetek eboluzio handia izan du azken urteetan, eta webguneek etengabeko berritze prozesua jasaten dute, erabiltzaileentzat erakargarri izateko. Azken hamar urteetako Interneten historia ia guztia biltzen duen webgunea da www.archive.org.

Trikimailua

Ordenagailua erostean egin beharrekoa

Gero eta ohikoagoa da ordenagailua erostean software asko aurretik instalatuta topatzea, eta ez Windows bakarrik. Ordenagailuekoilek handiek software garatzailaekin izaten dituzten akordio komertzialen ondorioz, software desberdinen probako bertsioak instalatuta daude ordenagailuetan.

Ordenagailu berria txukun izan nahi bada, komeni da horiek guztiak kentzea; horretarako dago PC Decrapifier. Tresna horrek ordenagailuan dauden probako software horiek detektatu eta desinstalatzeko aukera ematen du. Erabilgarria da; erabiltzailearen esku uzten du zein aplikazio kendu. <http://www.yorkspace.com/pc-decrapifier/>.